

ZENBAT BURU
Juan M. Elustondo

ERREPORTAIA
MERCADECO:
kontsumo
solidarioa

UDALETXETIK
EAJk egindako
irregulartasunak
salatu ditu HBk

BERBETAN
Julen Agirre
Algeciras-era
bizikletan

KIROLA
Gabonetako
Kuadrila arteko
Txapelketa

GAZTAROA
Piercing-a

BARREN

1996ko abenduaren 13a
IV. urtea - 176. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Hirugarren munduarekin elkartasuna



"Emanez bakarrik lortuko duzu zerbait edukitzea" Charles Spurgeon

EITEK

Informatika

Paciano Arosa, 1
Tel-Fax: (943) 20 30 90
20600 EIBAR

Ordenagailu portatila

Ordenagailuak

Inpresorak

Konponketa eta mantenua

INTERNET banatzailea

Neurrira egindako
software-a

ERAKUSKETA
IRAUNKORRA

PREVIEW monitorean
banatzaile bakarra



EPSON Stylus COLOR 200



EPSON Stylus COLOR 500

GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9 - Tel. 74 13 92
20870 ELGOIBAR



Gure denda
erosteagatik **GASOLINA**
TXARTELAK eskuratuko
dituzu.



Gure denda
kalitate
gorena
duen
haragia
bakarrik
saltzen dugu. **EUSKAL**
LABELA duen haragia.

TXANKAKUA Merkataritza Elkarteko partaide

garenez,
Gabon
kanpaina dela
eta, **KANARIAR**
IRLETARA
BIDAIA



Beti bezeroaren
erosotasunari begira,
hemendik aurrera zure
erosketak **TXARTELA**rekin
ordain ditzakezu.

Olentzeroren

JUVENANCE KREMAK

(7.330 pta.)

YUDEGO lurrindegia



MAHAIKO ERLOJUA

(50.500 pta.)

PATXI erlojudenda



KAMISOIA (11.000 pta.)

KARKIZANO

mertzeria



IDAZ-MAKINA

(18.000 pta.)

MEKANOSA



PRAKA ETA ALKANDORA

(13.855 pta.)

JON konfekzioak



BOLIGRAFOA (3.380 pta.)

CLASSY paperdenda



MENDIKO BOTAK

(15.300 pta.)

IRIONDO kirolak



BITXIENTZAKO

ZILARREZKO KAXA

(5.625 pta.) ANE dekorazioa



JERTSEA (9.875 pta.)

GARATE erropa denda



HAURRENTZAKO BOTAK

(7.300 pta.)

PINOTXO zapatadenda



PANPINA (2.500 pta.)

TIK-TAK haur erropa denda



AULKIA (11.200 pta.)

CASCANUECES eskulan-denda



EGUZKITARAKO BETAURREKOAK

(19.780 pta.)

IKUS optika



20"ko TELEBISTA


(37.900 pta.)

BIRE elektragailuak



LIBURUA (4.950 pta.)

GOROSTIZA liburudenda



POL TSA

(10.500 pta.)

OSORO zapatadenda



GALTZERDIAK (1.800 pta.)

ZUBIAURRE mertzeria



PRESIOZKO LAPIKOA

(7.350 pta.)

ETXABE ferreteria



GALANA

(12.780 pta.)

IRIONDO altzari-denda



KILOMETRO KONTAGAILUA

(2.500 pta.)

ASTIGARRAGA garajea



zakua

KAZADORA ETA PRAKAK

(15.800 pta.) MASUMI'S
erropadenda



TERMOMETROA

(11.500 pta.) UZURI optika



SPORT ERROPA

(19.270 pta.)
MUXI kirolak



BI COMPACT DISC

(4.800 pta.) PITXINTXU



LOREAK (1.200 pta.)

MIMOX loradenda



ORDENADORE MAHAIA

(30.800 pta.)
CALCULMEKANO
paperdenda



PIXAMA ETA BATA

(12.790 pta.)
ECENARRO
mertzeria



DEPORTEZKO

ZAPATILAK (9.750 pta.)
ASTIGARRAGA kirol denda



ARGAZKI MAKINARENTZAKO

POLTSA (5.900 pta.)
OSTARKU
argazki
denda



KRISTAL DE MURANO ETA URREZKO ZINTZILIKARIOA

(5.950pta.)
ARANBURU
bitxidenda



BONAVENTURE BAKEROAK

(8.975 pta.) LETE jantzidenda



BARRUKO ERROPA KONJUNTOA (7.350 pta.) SKANDALO





OLENTZERO iritsi da



LERUNera

ABENDUAN

urteko preziorik

onenak gama

**osoan: Fiesta,
Escort, Mondeo,
etab, ...**



Escort '96

**Turbo diesela
1.999.000 pta.**


ESKATU

CRIANZA

**Quina
Alcorra**

BERISTAIN Edari banatzailea ☎ 74 38 27

Pilota kontuak



JUAN MARI
ELUSTONDO

Gure kondairari begiradatxo bat botaz gero, aise jabetuko gara gure kirol honek Euskal Herriarekin duen loturaz.

Barandiaranek zioenez, K.a. 10.000-2.500 urte bitarte hartan, euskaldun artzainek pilotasoroetan jarduten omen zuten pilotan eskuz, soro edo zelai erdian eginiko marra batez bi aldeak bereiziz, gaur egungo tenisaren tankerara.

Hormarik gabe jokatzeko era hari “joko zuzena” zeritzoten. Gerora, pilotalekuak aurreko frontisarekin soilik agertzen dira.

Frantziako iraultza garaian, oso hedatua egon omen zen jauntxo-en artean eta lehendabizi eskuz edo eskularruz jokatzeko bazuten ere, azkenean raketaz, (tenisaren sorrera)...

Eta jauntxo-en artean tenisak, futbolak eta beste kirol batzuk indar hartu zutenean, Euskal Herriko auzo eta herri laborarietan “laxoa” jokatzeko zen. Berorrek herritar xehearrengan sortzen zuen grina, ikusmina eta pilotarienganako miresmena neurrigabekoa izaki. Herri arteko partidua haieran, pilotari eta herritar, txertaturik ageri dira beren herri nahiz gizarteko helburuekin. Horregatik, esan genezake pilota euskaldunon kulturaren zati bat dugula; herrian oso erroturik zegoen bizimolde baten adierazpide.

“Beste hainbat kirol kanpotik ekarriak badira ere, pilota-jokoa geure ondareztat hartu behar”

XIX. mendean, industria indar hartzen hastean egiten dira ezker-paretak pilotalekuean eta egungo itxura ematen zaie. Tantu-kontaketa ere tantuz tantu eta 22ra aldatzen da.

Beste hainbat kirol kanpotik ekarriak badira ere, pilota-jokoa geure ondareztat hartu behar.

Egun, sekula baino leku gehiago ematen zaio eskupilotari telebistan nahiz irratiari eta pilotari ugari dago bazterretan.

Elgoibarren ere badago pilotaleku franko. Zazpi bat egongo dira eta ez da edozein herritan aurkituko horrelako aukerarik.


Aipagarria San Lorenzo, San Migel eta Sigmako frontoietan urtero antolatzen diren txapelketak. Hauetan ez da dirudik jokatzeko baina, sari bat edo beste tarteko dela egundoko lehia eta animazioa izaten da; gero, azkenean, bazkari batekin sekulako lagunarte giroan amaitzen dutelarik.

Beste txapelketa mordo bat ere jokatzen da gure herrian, baina denak ezin aipatu hemen.

Gauza bat bakarrik: pilotan edonork joka dezake gastu handirik egin gabe eta oso ongi igaro denbora. Horretarako ez dago Retegi izan beharrik.

Aupa pilotariak!!

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEA

Maite Rementeria

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Xabier Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo,

Ina Garagarza, Ane Goikoetxea,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

J. Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal,

Benantzio Otaegi, Leire Urkidi,

Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta,

Deñe Zabalo eta Lucia Zubiaurre

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

TIRADA

3.800 ale

LEGE GORDAILUA


SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

BARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



Lehenengo hitza, euskeraz

Euskerak kriston buruhaustiak ematen dizkitx: 003ra deitxu, euskeraz berba ein eta telefonistiak hasarre gazteleraz itxeko esaten ditx. Nunbaitxerako bidia galdetu hiriburuan (beti ere euskeraz) eta erantzun gabe alde itxen diabe; nere lagunak kafetegixan euskeraz eskau eta... ¡”en cristiano!””. Lagunak, berriz, “vete y dile a mi amuma que el euskera no es cristiano!””.

Hori gutxi balitz, aurrekuan bankuan gazteleraz ein eta... euskeraz erantzun ziaben!!! Nere barrua sutan jarri zan. Zergatxik ez naban bankuan euskeraz ein?

Ez jata gehixotan gertauko. Nahiz eta hamaikatxo bider euskeraz galdetu, eskau edo berba itxiagatik jendiak arpegi txarra jarri, euskeraz itxen jarraitxuko dot, lehenengo hitza euskeraz botako det.

Nazkatzen hastian eta erderaz itxekotan nauanian, ezezagun honi bankero euskaldunan anaixa izan leikela pentsauko dot.

Ezezagunak euskeraz dakixala konprobatzen badot, bixok poz-pozik gure hizkuntzan jardungo dogu, eta bestela... euskerak oindiokan itxeko bide luzia dakala gogoratuko dot.

Amaia

OHARRA: Joan den asteko BARRENen, 175. zkia.n hain zuzen, “Elgoibartarrak liburu artean” izeneko erreportaian, aipatzeke utzi genuen elgoibartar idazle bat: Jose M. Ondarza. Honek idatzitako liburua “Los senderos del movimiento” izenkoa da.

Badatoz Gabonak

Hemen dira zorioneko Gabonak! Urte guztia halamoduz pasa ostean, ONDO PASATZEKO fetxak iritsi zaizkigu. Eta zuk ondo pasatzeko eta zoriontsu izateko motibo handirik ez badaukazu ere, behin eta berriaz gogoraziko dizute ondo pasa behar duzula, zoriontsuak izan behar dugula, eta albokoari ere zoriontsu izatea opa behar diozula. Gabonetako lehen agindua da!

Baina bada bigarren agindurik ere! Urtean behin zein ‘pobreak’ garen gogoratu behar dugu. Bestela ere ahaztuta izango bagenu bezala! Eta pobretasun horren aurrean, herriko kioskoetan (edo Bilbokoetan!) ilara luzeak egitea baino hoberik ez zaigu okurritzen. Abenduaren 21eko gauean gure miserien amaiera heltzear dagoela amets egingo dugu. Baina 22ko gauean, errealitatea izango dugu berriz ere oheko lagun eta ez digu lagako guk nahi bezala lo egiten.

Eta hirugarrena... Keba, ez du pena merezi gehiago luzatzeak. Kartaren amaiera elgoibartar guztioi Gabon zoriontsuak opatzeko aprobetxatu nahi dut. Eta badaezpada ere loteria eroatera animatzen zaituztet. Dirua zikina izanik ere, gure etorkizuneko lokatzak garbitzeko oso aproposa baita.

A, eta egun hauetan zure ingurua ilun ikusten baduzu, lasai, irten kalera eta bazter guztiak argiz beteta ikusiko dituzu.

Baina zergatik neguaren berezko iluntasuna argitzeko kapritxo hau?

L. A.

GALDERAK

◆ 11 urteko mutiko batek honako galdera hau luzatu digu: “Udalak aspaldi esan zigun Santa Klaran porteria berriak jarriko zituela. Baina oraindik zein gaude. Zeren zain dago Udala porteriak jartzeko?”

Kirol Teknikariaren erantzuna: “Santa Klarako auzokideak sare babesle bat ipintzekotan dira baloiek etxeetako kristalak jo ez ditzaten. Porteriak erositak daude eta zain gaude sarea jartzeko. Ipin bezain pronto jarriko ditugu porteriak”.



◆ Santa Ana kaleko errotonda berrian semaforoak ipintzeko asmorik ba al dago?

Udaltzaingoko sarjentoari deitu eta ezetz esan digu, “batetik, beharrik ez dagoelako eta bestetik, mesede baino kalte egingo liokeelako zirkulazioari. Dena den, gaur egun lurrean margotuta dauden isletetan lorontziak jarriko ditugu. Hortaz, atsedene-gune moduko bat izango da isleta horietan, oinezkoek errepidea bi zatitan gurutzatzeko aukera izango dutelarik”.

KEXAK

◆ Neska batzuk etorri dira **Eskolarteko jokoak Pilar ikastetxean** direnean atea itxita egoten direla esateko. Dirudenez, ikastetxe ondoko bidexka batetik sartu behar izaten dira barrura eta partiduak daudenean atea irekita egotea eskatzen dute.

◆ Irakurle batek esan digu ez zaiola ondo iruditzen **Plaza Txikiko arkupeetan** baloiarekin jolasean ibiltzea. Batetik, arkupeak zikitzen dira eta bestetik, han ibiltzen diren haur edo nagusiak kolpatzeko arriskua ere badago.

BAI ESAN?



Juan Mari Mendizabal
EKBko lehendakaria

Aste honetan EKBko lehendakaria den **Juan Mari Mendizabal** elgoibartarrarekin egon gara. Izan ere, bihar, hilak 14, manifestazioa izango da Bilbon. Ekintza honekin, EKBk prestatutako **“EMAN EUSKARARI BERA”** kanpainari amaiera emango zaio.

– **Zer da, bada, euskarari eman behar zaiona?**

Beste edozein hizkuntzari ematen zaiona, hau da, bere erabilera normalizatu ahal izateko baldintzak, leku eta lurralde guztietan. Arlo guztietan erabili ezik hizkuntzak hil egiten dira.

– **Non igarri dituzue hutsunerik handienak?**

Euskal hiztunok gutxiengoa izaten jarraitzen dugu, euskarazko irakaskuntza ez da guztiaren erdira iristen EAEn eta askoz atzerago Nafarroa eta Iparraldean. Instituzio politikoetan erabilera oso maila bajaran dago eta administrazioan hori finkatzeko plana falta da, legez ezagutzen zaizkigun hizkuntz eskubideak ez dira betetzen, euskararen eta euskal kulturaren aldeko herri ekimenaren lanak nekez aurkitzen du onarpen eta sustapen politika bat, eta gizarte esparru garran-tzitsuetan euskarak baztertuta jarraitzen du (lan mundua, justizia, administrazioa hainbat atal,...).

– **Zer lortu nahi duzue manifestazioarekin?**

Helburua euskaltzaleon kezka sakona kaleratzea da, eta hizkuntzaren aldeko politikan aurrera egin beharra aldarrikatzea, lurralde guztietan eta esparru guztietan.

Hemendik aurrera zure ametsetako bidaiak CLASSYn aurkituko dituzu.

Classy

San Frantzisko, 56
Tel-Faxa: 74 02 40
ELGOIBAR

ASTEBURUAK

5.450 pta.
Lo + gosaria + afari bat
Cantabria, Nafarroa,
Errioxa, Andorra,...

HEGAZKIN BIDAIK

Joan-etorriak
Madril 10.900 pta.
Bartzelona 15.600 pta.
Malaga 16.900 pta.

MERCADECO

Solidaritatea

kontsumoaren bidez



Afrikako herrialdeekin ere harremana du Elgoibarko Misio Taldeak.

Joan den larunbatean ireki zituen ateak San Frantzisko kalean Mercadecok. Parrokiako Misio eta Gazteen Sendotza taldeek zerbait egin nahi zutela eta, Europa mailan hedatua dagoen esperientzia martxan jarri dute. Printzipioz hilabete t' erdi egongo da irekita eta helburua, jasotako dirua 3. munduko hainbat herrialdeetara bidal-tzeaz gain, jendearengan kontzientzia sortzea ere bada.

Xabi Gomez apaiz gaztearen esanetan, “gaur egungo gizarteak markatzen duen kontsumismoaren aurka gaude. Halere, oso zaila da jendeak dituen ohiturak aldatzea; beraz, kontsumitu beharra badago ere, gutxienez balio dezala beste zerbaiterako”.

Gaur egun munduko hainbat herrialdek bizi duten egoera larria kontuan izanda, Parrokiako Misio eta Gazteen Sendotza taldeek zerbait egin behar zutela erabaki zuten, “gure aldetik ere zerbait aportatu nahi genuen, batez ere kontzientzia sortuz. Izan ere, komertzio internazionalaren egitura ekonomikoa aldatu egin behar da, ipar eta hegoaren arteko harreman justoago bat eginaz”. Xabi Gomezek Mercadeco proiektuaren berri izan zuen, taldeetan azaldu eta denen oniritzia izan ondoren lanari ekin zioten. Mercadeco ONG bat da, Gobernu Kanpoko Erakunde bat. Orain urtebete denda txiki bat ireki zuten Bilbon eta gaur egun, Elgoibarren zabaldu berri denaz gain, Ermuan, Muskizen, Getxon, Gernikan, Gallartan eta Iruenen ere badaude. Europa osoan 2.500 denda inguru daude.

Txokolatea, kafea, jertseak...

Lehen esperientzia Gabonei begira antolatu dute elgoibartarrek, "jendeak asko kontsumitzen duen garaia delako". San Frantzisko kalean kokatzen den dendan gauza asko aurki daitezke: ron-a, txokolatea, kafea, tea, fruitu lehorrak, eztia, jertseak, ispiluak, kutxatilik, jaiotza txikiak, kamisetak, bufandak.... Ekoizleak pobrezia, diskriminazioa eta murrizketa ekonomikoak pairatzen dituzten herrialdeak dira. Euren produktuak erosten dira zuzenean, bitartekaririk gabe. Horregatik, prezioa merkeagoa da, "nahiz eta jatekoaren kasuan, adibidez, gerta daitekeen garestiagoa izatea baina kalitate aldetik oso onak direla esan behar da". Produktu guztiak artizanalariek dira, eskuz eginak, "kooperatiba moduan eitzen dabe lan askok, bakoitza zoezer eitziaz arduratzen da, artelana daniaren batek forma eman, bestiak margotu... Eta gehixenak emakumiak dia". Gainera, elikagaiak makrobiotikoak eta ekologikoak dira, "txokolata Suizan itxen da handik ekarritxako kakaoakin eta kafia Brasiletik bialtzen debe eta tostatu eta enbasau hemen eitzen da".


Brasil, Peru, Bolibia, Ecuador eta India

Momentuz, Brasil, Peru, Bolibia, Ecuador eta India dira herrialde kooperatzaileak. Beraiek ekoizten dituzten produktuak saltzen dira dendan eta jasotako diruaren %80a herrialde horietara bidaltzen da. Gainontzeko %20a Misio eta Gazteen taldeek erabakiko dute zein proiektu bultzateko erabili, "aurten, esate baterako, Indiako nekazariei lurrak erosten lagundu diegu". Izan ere, Brasil, Cuba, Angola, Senegal, India eta Ruandarekin harremanak dituzte Parrokiako Misio taldekoek. Urte asko daramatate lanean eta, esan digutenez, urte hauetan guztietan ekintza eta proiektu asko landu dituzte, "behin karta bat iritsi zitzaigun Afrikatik. Bertako emakumeek 20 km. egin behar izaten zituzten oterra buruan artoa ereiteko errotaraino joateko. Laguntza eskatzen zuten euren herrian bertan errota eraiki ahal izateko. Elgoibarren 400.000 pta. inguru jaso

genituen eta benetan pozik erantzun ziguten. Brasildik ere orain gutxi idatzi digute guk bertara bidalitako diruari esker eliza eraikitzeke lehen harria jarri dutela esateko, argazki eta guzti iritsi da eskutitza".

Kontsumitzeko era solidarioa

Astebete bakarrik darama irekita Mercadecok eta denbora honetan jende asko hurreratu da, "asko kuriosidadez sartzen dia eta gehixenak erosten debe zoezer. Lelengo astian ixa jenero gabe geratu gera eta oin zain gaude. Esan digute laster ailegauko dala, barkuan dator eta". Aste-gunetan goizeko 10etatik eguerdiko 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara dago zabalik eta larunbatetan goizeko 10etatik 1etara. Xabi Gomezek esan digunez, "jende guztia animatu nahi dugu dendara hurreratu dadin. Ez dugu inor kontsumitzera bultzatu nahi, baina kontsumitu behar duenak jakin dezala dendan gauza asko dagoela aukeran eta era honetara, beharra duen jendeari lagundu ahal izango diotela. Kontsumitzeko modu solidarioa da. Garbi utzi nahi dugu, gainera, jasotako diru guztia iristen dela herrialde horietara. Jende askok zalantza bera izaten du, kezka bera, ea diru hori gero ondo iristen den. Guk esan dezakegu baietz, hala dela. Orain arte izan dugun esperientziak erakutsi digu den-dena ailegatzen zaiela, beti jaso baitugu eskutitzen bat beraiengandik eskerrak ematen".



Olatz Ibarra
Parrokiako Gazteen Taldekoa

- Zein izan da zuen lana?

- Jeneroa iritsi zenean dena desmontatu eta dendan kokolatu egin behar izan genuen eta gero taldeak turnoetan banatu genituen. Jendeak oso ondo erantzun du. Nahiz eta garai txarra izan azterketak ditugulako, inork ez du oztoporik jarri. Azken finean ordu t'erdi bakarrik da eta denbora hori gustura ematen dugu dendan, nahiago horrela izatea etxean telebista ikusten egotea baino.


- Zer iruditzen zaizu esperientzia hau?

- Oso ondo dagoela. Beharrezkoa da era honetako gauzak egitea jendeari lagundu ahal izateko. Ez da nahikoa baina hasteko oso positiboa izan daiteke.

Hona hemen Mercadecan eros daitezken zenbait gauza.



Ematen al duzu laguntzarik 3. mundurako?



PEDRO GARATE
65 urte, jubilatua

Gauza haundirik ez. Nunbaitxen bagaude apurtauta, Unicef edo horretan. Aparte, etxian sobratzen diazen erropak beltzentzat ematen ditzugu.



M. LUISA BLASCO

33 urte, etxekoandrea
Ez daukat ohiturarik. Seme-alabei eskolan eskatzen dietenean bidaltzen dut jatekoa edo erropak, baina dirurik ez, senarra langabezian daukat eta.



AGEDA ARROYO
42 urte, etxekoandrea


Ahal dudan guztietan. Dirurik ez dut bidaltzen baina orain seme-alabei eskolan esan diete kilo bat janari edo beste zerbait eramateko.



JESUS CASTANARES

55 urte, trat. termikoak

Bai, tarjetak eta bialtzen die etxera, kalendarixuak eta, gero nik jirua bialtzen dot. Caritas-en ere laguntzen dogu, bertakuek ere bada-kelako biharra.



JOSE LUIS HUIDOBRO

44 urte, inpresorea

Normalean ez dugu laguntzen. Etxean 4 gara eta egoera ekonomikoa ez da onena. Nik uste nahikoa behar dagoela hemen kanpora bidaltzen hasi aurretik.



ONINTZA ARANBURU

25 urte, dendaria

Nire amak bi haur dauzka apadrinatuta eta misioetara ere badakit bidaltzen duela. Gabonetan, saiatzen gara Unicef-eko tarjetak bialtzen.

ASESORIA
GOIBAR

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Lanbro

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Eguberri... zaharrak berri

Pobrezia errotik kentzea helburu duen urte hau bukatzean dago. Dena estatistika hotzetan eta borondate onetan gelditze bada, nazioarteko urte hau hipokresia hutsa besterik ez da izango. Ziuraski datorren urtean okerrago jarraituko dugu: aberatsak gero eta aberatsago; pobreak, berriz, gero eta pobreak.

Sistema ekonomikoa eta bere eragileak bidegabekoak izatetik bihotz-krudelak izatera pasatzen doaz. Eta hemen, beti bezala, errudunak nortzuk diren galdetzen diogure buruari. Neoliberalismo madarikatuak, USAk, FMIk, Banketxe Mundialak eta beste erakunde erraldoi askok badute zerikusirik. Arazo honen aurrean ezin dugu burua ezkutatu, beraz, ondo legoke kontzientzia solidarioa berreskuratzea eta gure bizimodua zuzentzen duen baloreen eskala berrikustea.

Paternalismoak alde batera utzita, zuzentasuna eta anaitasuna eskatzeko ordua dugu. Urtea okerrera doa, Zaire eta Ruanda jasaten ari diren oinazea tartean dugularik. Pertsona bat gosez edo utzikieriaz hiltzen lagatzen dugun bakoitzen hil egiten dugu; Jainkoa hiltzen dugu. Esnatzeko ordua dugu. Afrikak bizi egiten behar du.

Nire esku egongo balitz, egungo Gabonak, negozioa eta kontsumismoa barnean daramatenak, alegia, kenduko nituzke. Zaratatik isiltasunera, kontenplaziora bueltatu



F. JABIER GÓMEZ

nahiko nituzke; kristauon Jainkoa, kontsumoaren eskuetatik askatuz.

Kontsumitu behar baduzu, egin ezazu arduraz. Emaiozu zerbait beste bati, zuretzat garrantzitsua den zerbait, eta ez izan ahula edo idealistaren itxura hartzeko beldurrik.

Bidezko Merkataritzako dendak errebelatzen garenon ezaugarri apala eta aukera bat besterik ez dira. Garapen integrala eta proiektu kooperatibista bultzatuz bidegabe-riaren aurka egiten duzu apostu.

Gogora ezazu, fededun bazara, kristauok dugun Gabon muina: bizitza eta pakearen iturri den Jainkoa, Nazaret-eko Jesus, abere artean jaio, txikitik etorkin izan eta Egipton errefuxiatuta egon bazen ere, pobre, gaixo, preso eta baztertuei Berri Ona eta askapena eman zien aditzera.

Zergatik ez bueltatu orain dela 2.000 urte gutxi gora-behera atzera, ospatzen genituen Gabonak ospatzeko?

%0.7a gutxienez, ORAIN!

iSPI-
DEGIRA

*Las Javis
Pobretako*

ABARKA
dendakoa

- **Takoa ala plataforma?** - Takoa.
- **Kanperak ala bota militarrek?** - Neretzat ez bata eta ez bestea.
- **Galtzerdiak ala galtzetinak?** - Galtzerdiak.
- **Nora joan nahi zenuke bota magikoak jantzita?** - Caribera.
- **Zeri botako zenioke betuna disdira atera arte?** - Lanari.
- **Eta zer zapalduko zenuke desagertarazi arte?** - Inbidia eta gorrotoa.
- **Zein printzek nahi zenuke zure oinetakoa izatea?** - John-John Kennedy-k, esate baterako.
- **Zerez beteriko potzu agortezina nahi zenuke?** - Pakez eta zorientasunez.
- **Zein arrazoiarengatik egingo zenuke garrasi?** - Pozagatik.
- **Denboran atzera ala aurrera egingo zenuke?** - Atzera, 30-35 urte nituen garaira edo.
- **Gabonak gustatzen al zaizkizu?** - Ez, oso tristeak iruditzen zaizkit.
- **1997. urterako desio bat?** - Orain arte bezain ondo jarraitzea.
- **Zein opari jasoko zenuke gustura?** - Arropa.
- **Jokatuko al duzu Gabonetako loterian?** - Bai.
- **Eta tokatuko balitzaizu?** - Bidaia bat egingo nuke eta gainontzeko dirua behar dutenei laguntzeko erabili.



I. URTEURRENA

1995eko abenduaren 10ean hil zen **LUIS MARI MURUAMENDIARAZ BASTARRIKA**ren oroimenez, **URTEMEZA** izango da larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 7etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



● Idekok ISO 9001 kalitate agiria jaso du

Arriaga industrialdean kokatua dagoen Ideko Teknologik Zentroak iharduera esparru guztietarako ISO 9001 kalitate txartela eskuratu du. Agiri honi esker erreminta makinaren sektoreko produktu eta sistemak hobetzeko I+D proiektuak burutu ahal izango dituzte. Iharduera esparru guztietarako kalitate agiria lortzen duen lehen teknologik zentroa da Ideko.

● 4x60 erreleboetan garaile

Maialen Mora, Guruzne Urkidi, Gorane Salaberria eta Ana Etxaniz, 4x60 metro erreleboetan txapeldun geratu ziren joan den zapatu goizean Mintxetako Atletismo pistan jokatu ziren eskolarteko jokoen barruan. Honez gain, lau hauek 60 metroko lasterketan bigarren postua eskuratu zuten ikastetxekako sailkapenean. Nuria Revueta, bere aldetik, bigarren postuan iritsi zen 80 metroko lasterketan. Elgoibarko ikastetxetako haurrek ezezik, Zestoa, Azpeitia eta Eibarkoek ere hartu zuten parte, guztira 100 bat neska-mutil bildu zirelarik Mintxetako pistan.

● Kanariar irletara bidaiatzeko zozketatuko du Txankakuak

Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak bezeroei zuzendutako zozketa antolatuko du Kanariar irletara. Bi lagunentzat Tenerifen astebete igarotzeko aukera izango da Txankakuako dendetan erosiz gero. Abenduaren 2an hasi zen kanpaina eta urtarrilaren 10ean amaituko da, zozketa egunean, hain zuzen ere.

300 bat lagunek omendu zuten Errosarioko Amabirjina

Errosarioko Amabirjinaren irudiari ongi-etorri beroa egin ziztaion pasa den zapatuan. Irudiarean berritze lanetarako diru-eskea egin da eta Ignacio Mugerza "Ruso" k esan digunez, "jendian erantzuna benetan harigarria izan da". Berritze lanen aurrekontua 200.000 pta.koa zen eta "oso gainetik superau da zifra hori".

Berrikuntzak

Amabirjinaren irudia joan den astean ekarri zuten Errosario kalera. Donostiako errestauratzaile batek egin dizkio hainbat hobekuntza. Barruko zerrauts ustelak kendu eta material berezi batekin bete da irudia. 4 kilo material erabili da horretarako. Jesus umearen besoa eta honek eusten duen bola ere berriak dira eta Amabirjinari ukalondotik eskuraino bitartean beso zati berria jarri zaio. Honez gain, irudiak zeukan 3 mm-ko pasta kendu da. Barnizatu egin da, margotu eta heze-

tasunaren kontrako tratamendua eman. Amabirjinaren kutxa ere berritu egin da eta argi gehiago jarri zaio.

Zapatu iluntzean errosarioa otoitz egin ondoren, Xabier Gómez apaizak irudia bedeinkatu zuen. Segidan

300 bat herritarrek prozesioan zerhakatuko zuten S. Bartolome kalea. Errosario kalean, Ignacio Mugerza "Ruso" k, brigadakoei lagunduta, Amabirjina bere lekuan kokatu zuen. Arzoren bat ere izan zen tartean. Itxuraz, Amabirjinaren besoak ez zuten kutxaren leihoa ixten eta errestauratzaileak besoa okertu egin beharko dio, izan ere, mugikorra baita besoa. "Ruso" k adierazi digunez, omenaldia oso emozionantia izan zan, jendiak prozesiua pasatzen ikustian, negar ere ein zaban".



Maskota lehiaketa

Deba Beheko Mankomunitateak zaborren bilketa selektiboaren kanpainarako maskota aukeratzeko antolatu duen lehiaketan San Bartolome ikastolako Amets Izagirre elgoibartarra bigarren postuan sailkatu zen. Ametsek mendiko bizikleta bat irabazi zuen.

Gaztetxo honek kanpaina agertuko den pertsonaiari "Triku" izena jartzeko proposamena egin zuen baina Amets-en pertsonaia aukeratu beharrean Debako neskato batek izendatu zuen "Konti" pertsonaia aukeratu zuten. Hala ere, Amets oso pozik dago bigarren saria irabazi duelako. Zorionak!



ignacio perez

Larunbat arratsaldeetan dendak irekita

Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkartek Elgoibarko dendari guztiak bilera baten bueltan elkartu zituen joan den asteartean. Bileran larunbat arratsaldeetan dendak irekitzea erabaki zuten. Txankakuakoen esanetan, "bezeroei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko ezinbesteko baldintza da ordutegia zabaltzea. Neurri honi esker herritarrek beren erosketak egin ahal izateko ez dute herritik kanpo atera behar izango eta aldi berean Elgoibarko giro bizia ematea lortuko da".



Loreei buruzko hitzaldiak eta makilaia ikastaroa Elgoibarko Izarraren eskutik

Bi eskaintza hauek prestatu ditu Elgoibarko Izarrak abendurako eta biek izan dute oso harrera ona herritarren artean. Makilaia ikastaroan 12 lagun dabilta eta 6 orduko ikastaroa egiten ari dira Arantxa Aldazabal Mendaroko ileapaindegikoaren eskutik. Loreei buruzko hitzaldian, berriaz, 40 lagunetik gora izan ziren lehen saioan. Hitzaldia- ren arrakasta ikusita bigarren saioa prestatu dute hilaren 23rako.



Ikastaroak gurasoentzat

Udal Ongizate Sailak eta herriko ikastetxeek bat eginik, gurasoei zuzenduriko hezkuntza ikastaroen eskaintza zabala antolatu dute. Helburua hezitzaile rolean gurasoei laguntza eskaintzea eta orientatzea da. Landuko diran gaiak autoestima, guraso-hezitzaileak, heziketa sexuala, drogomenpekotasunen prebentzioa, guraso eta seme-alaben arteko liskarrak nola konpondu etab. dira. Berri gehiago jasotzeko Udal Ongizate Sailera zuzendu (74 10 08)

Benidorm-era bidaiak

Jubilatuak Etxeak Benidorm-era joateko aukera bada goela oraindik jakinarazi nahi die bazkide guztiei abenduan, urtarrilean eta otsailean izango diren bidaietan. Abenduan edo urtarrilean joanez gero, Gabonetako eta Erregeetako jaietan parte hartzeko aukera ere izango da. Informazio gehiago jasotzeko Jubilatuen bulegotik pasatu.

Bertso Eskolaren hasiera


Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek antolatzen duen Bertso Eskolaren ikasturte berria urtarrilean hasi eta ekainera bitartean luzatuko da. Irati Agirreazaldegiren ardurapean izango dira klaseak, dohainik. Klaseak ostiraletan izango dira arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean. Izena emateko Elgoibarko Izarratik pasatu (74 16 26).

Ibaiak kasik gainezka egin zuen ostegunean

Joan den ostegun iluntzean Deba ibaiaren ildoak bere bidetik irteteko zorian izan zen. Elgoibarren gainezka egin ez bazuen ere, Mendaron arazoak egon ziren, ibaian obrak egiten ari diren lekuan, hain zuzen. Elgoibarren eta inguruetan 3,54m hartu zituen ibaiak (3 metroa iristean arriskua dagoela kontsideratzen da).

Jose Roncoren erakusketa

José Ronco eibartarraren zuri-beltzeko argazkien erakusketa inauguratu zen joan den ostegunean Kultur Etxeko erakusgelan. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, hilaren 27ra arte egongo da irekita arratsaldeko 6etatik 9ak arte astegunetan etra zapatuetan. Erakusgelan bertan, 3 argazki orijinalak osaturiko karpeta salgai jarriko da 10.000 pta.ren truke.



Herriko Antzokiko obretan kontratazio zuzena egin izana salatu du Herri Batasunak

Kontu Epaitegiaren txostenean oinarrituta, EAJren finantziazio ilegala salatu du

Joan den ostiralean HBk Kontuen Euskal Epaitegiak kaleratutako txostenean 1994. urteari buruz ikusitako irregularitasunak salatu zituen prentsaurrekoan. Pello Mendizabalek alde batetik, kontratazio administratiboetan ilegalitatetik kanpoko ekintzak aztertu zituen. "Herriko Antzokiaren kasua oso adierazgarri da. Legearen arabera, obretarako zuzendutako aurrekontutik %10a baino gehiago eskatzen duten proiektuek plenotik pasatu behar dute onartu aurretik. Herriko Antzokiaren kasuan, aurrekontua gremioetan banatu zen partiden zenbatekoa murriztuz eta plenotik pasa gabe onartu. Kontratazio zuzena egin zen eta Ulacia konstruktoreari eman zitzaion obra zibila. Gainera, azkenean aurrekontua ia %50a igo zen. Guztia inolako kontrolik

gabe".

Konstruktoreak garaile eta Udala galtzaile

Zor publikoari dagokionean berriz, "PNVren praktika konstruktoreen interestara makurtuta dago. Konstruktoreak garaile eta Udala galtzailea ateratzen da", azaldu zuen. Leku Eder-eko kasuan, esaterako, "bi etxe ilada gehiago egitearen truke Udalak 72 garaje eskuratu zituen. 120 milioi jaso behar zituen saltzean baina gaur egun %50a saldu gabe dago. Diru sarrera hura ez zenez egon, prestamoa eskatu behar izan zuen Udalak aurrekontuei aurre egin ahal izateko".

Bestalde, arau kontableari buruz hitzegin zuten, "Elgoibarren ez da martxan jarri eta dena inolako kontrolik gabe egin da. Datuak faltsifikatu egin dira. 1994ko aurrekontuetan



HBk EAJ eta konstruktoreak herritarren dirua bereganatzeaz salatu zituen.

120 milioi sartu ziren, garaiekin, eta sarrera hori ez zen egon". Azkenik, gaineratu zuen, "artekaritzako administrariaren kasua ere 1994.ean hasi zen".

Erantzukizunak

HBk konklusio garbiak atera zituen hau guztia ikusita, "Ulacia eta PNV ari dira elgoibartarron dirua bereganatzen. Epaitegiaren txostenak HBk jarraitu

duen lan politika baieztatzen du. Hau guztia politika egiteko modu baten fruitua da, PNVren monopolioaz eta PSEren baimenarekin". HBk erantzukizunak eskatuko ditu, "gaur egun alkattea den Guillermo Garate lehen Kulturako lehendakaria zen eta Herriko Antzokiaren kasua hor dago. Guk gaia aztertzea eskatuko dugu plenoan eta erantzukizunak eskatuko".



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

HISPANIA  ZURICH

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29

Kidea 

ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

kiliBARREIN

Mendaroko gehigarria

Abenduaren 13a

35. zkia.

H

Hilabete honetako argazkia **Martin Ulaziak** lagatkoa da. Argazkia, ikusten den bezala, nahiko zaharra da, 40 urte inguru izango ditu. Martinek esan digunez, erretratua Andikoetxe baserriko atarian aterata dago eta egun horretan festaren bat izan omen zuten.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

1. ilaran, ezkerretik hasita: **Juana Mugerza (†), Domingo Ulazia (†) eta Valeriana Ulazia.**
2. ilaran, ezkerretik hasita: **Juan Ulazia, Domingo Ulazia eta Maritxu Ulazia** haurrak.

II. Kontzezio Azoka, jendez gainezka

2 Etorri bezala joan zen Mendaroko II. Kontzezio Azoka. Eguraldiak amenazu egin zuen aurreko egunetan eta bezperan ikusi ahal izan genuen zeru urdin eta eguzkitsuaren ostean, euritsu esnatu zen larunbata. Halere, eguerdi partera aterri egin zuen eta giro majoa izan zen egun osoan zehar Mendarora hurreratu zirenen artean. Argazkietan azaltzen den bezala, denetik izan zen ikusgai Mendaron: euskal pastela, Mendaroko txokolateak, sagarrak, gazta, nekazaritza ekologikoa, ganadua, zaldiak...



Zertara etorri zarete II. Kontzezio Azokara?



INAXI MENDIKUTE
Jubilatua

Ferixia ikusi eta konpra batzuk eitxera etorri naiz. Gaztaia eta berdu-rak erosi ditxut, kalidade ona erostia gustatzen jata eta ez jata inporta piskat gehixo ordaintzia. Animaliak ikusi ditxut eta jendiakin ere egon naiz goiza pasatu aldera.



TXOMIN ULAZIA
Gidaria


Ferixia ikustera etorri naiz, jendiakin egon eta goiza pasau. Gaztaia erosi det eta ona bada ordaindu ein bihar da. Nere ustez ferixan gauza asko falta dia oraindik baina hortarako jendia bihar da kolaboratzeko.

SABIN LONGARTE



IGONE URBIETA
Administraria

Ferixia ikusi eta zerbait erostera ere etorri naiz. Gaztaia, frutia eta berdu-ria erosi ditxut. Kalidadiari begirutzen diot eta nahiz eta garestixaua izan, ona bada, merezi dau erostiak.



Jubilatua

Ferixia ikustera etorri naiz, oraindikan ez det ezer erosi baina gaztaia eta ogixa erosteko asmua dakat. Kalidadiari begirutzen diot, garestixauak dia baina merezi dau erostiak. Animalixak ikustia ere gustatzen jata.

3

Gabon Zoriontuak eta Urte Berri On!

ARRATS
Pub

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

Jubilatuentzako txokolatada

- "Lagun Betikoak" Jubilatuen Elkartek
- bazkide guztientzat demaseko txokolatada antolatu du biharko, abenduak 14.
- Arratsaldeko 5etan hasiko da txokolatada eta Ikastolako gimnasioan izango da.

Gimnasia erakustaldia

- Igandean, abenduak 15, Elgoibarko Ibai Gimnasioko ikasleek kirol erakustaldia eskainiko dute Mendaroko Udalaren laguntzaz. Aerobic, Gimnasia erritmikoa eta Takewondo izango dira ikusgai, besteak beste, eguerdiko 12,30etan
- Goñati pilotalekuan izango den saioan.

Olentzero

- Urtero bezala, aurten ere Olentzero izango da abenduaren 24an, Mendaroko abesbatzak antolatuta. Irteera arratsaldeko 4etan izango da Garagartzako plazatik eta ondoren Mendaroko kaleetan zehar ibiliko da. Jasotako dirua Azpilgoetako elizarako organo berria erosteko izango da.

4

Ipuin Lehiaketaren sari banaketa

- 1997. urteko urtarrilaren 5ean, igandea, eguerdiko 1etan Euskarazko II. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa izango da Kultur Etxean. Epaimahaia Arantza Egaña Euskara Batzordeko buruak, Angel Basterretxea Mendaroko apaiz eta literatur zaleak eta Jasone Osoro, BARRENekeko kazetari eta idazleak osatuko dute. Partehartzaile guztiei emango zaie oroigarri bat.

Errege kabalgata

- Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, Kabalgata izango da Mendaron Arno Guraso Elkartek antolatuta. Errege kabalgata Santa Ana ermitatik aterako da iluntze aldera eta ondoren herriko kaleetan ibiliko da umeengan ilusioa piztuz.



Jose Antonio Ardanza Mendaron

Jose Antonio Ardanza lehendakaria Mendaron izan zen azaroaren 27an. Aurretik, goiz partean Elgoibarren izan zen bertako San Lorentzo auzoko ermitako margoak inauguratzen. Ondoren, eguerdiko 12,30ak aldera, Mendaro-

ra etorri zen, iaztik pendiente zuen bisita egiteko intentzioarekin. Horrela bada, lehendakariak industrialde berria, Ikastola eta Jubilatuen egoitza bisitatu zituen eguerdiko 2ak arte luzatuko zen egonaldian



Kontzezio Eguna

Abenduaren 8an, urtero bezala, Kontzezio eguna ospatu zen Mendaron. Garagartzako Kontzezio elizan meza izan ondoren, ohi denez, ardo goxoa eta pastak banatu ziren

hurreratutako jendearen artean. Eguraldia nahiko kaskarra izan bazen ere, dextente pertsona bildu zen Kontzezio Eguna berezia ospatzen, ederki jan eta bapio edanaz.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Orain hilabete inguru El-goibartik Algecirasera-noko bidaia bizikletaz egin zuen. Julen Agirrek 37 urte ditu eta ez da lehen aldia era honetako irteera bat egiten duena. Lehenago ere Hego-Amerikan egon izan da, Hendaia-Andorra, Hendaia-Suitza eta bestelakoak ere egin izan ditu. Horiek gehienak bakarrik. Ez hala erabaki duelako, hala tokatu zaiolako baizik. Eta bakardadaea batzuetan gogorra egiten dela aitortu digun arren, aberasgarria ere badela gaineratu du.

JULEN AGIRRE

“Bizikleta ganean daramazun filosofiak pisatzen du”

- 1.200 km. bakarrik.

- Bai, fetxa hauetan nituen oporrak eta bizikletaz joan nahi nuen. Ez da erraza laguna bilatzea. Lehen ere joan izan naiz bakarrik.

- Eta? - Batzuetan bakardada gogorra da baina, beste alde batetik bakardadeak berak zabalago egiten zaitu, jendea ezagutzera behartzen zaitu eta benetan aberasgarria da.

- Beti bizikletaz. - Bai, oso gustura sentitzen naiz bizikleta ganean. Horrek ez du esan nahi gainontzeko garraioak erabiltzen ez ditudanik. Algeciras-era bizikletaz joan eta trenez bueltatu nintzen eta beste bidaia batzuetan hegazkina, ferrya,... denetik erabili behar izan dut.

- Merkeago ateratzen al da? - Ez pentsa. Bizikletaz

zoazenez elikadura asko zaindu behar duzu, ondo jan behar da bestela indar asko galtzen duzu. Eta lo egiteko orduan ere, nahiz eta zakua eraman, ahal izanez gero hobeto da ohe batean lo egitea, pentsio, hostal edo albergeren batean. Askoz gehiago deskantsatzen da.

- Zakua, jatekoa... pisu asko, ez? - 25 kilo inguru edo. Baina ohitu egiten zara. Niretzat pisua ez da karga bat. Bidaian daramazun filosofia da pisatzen duena. Lehenengo, Toledora joan nintzen lagun bat bisitatze- ra, Gestoren aldeko elkartasuna ere agertu nahi izan nuen bizikletan neraman kartel baten bidez.... Oso lasai eta kargarik gabe.

- “Bohemio” samarra sentitzen al zara? - Ez.

Horretarako denbora alde- tik askoz karga gutxiago eduki behar duzu eta boltsikoa ere nik nuena baino hutsago. Turismoa egiteko era alternatiboa izan daite- ke nirea baina ez naiz bo- hemioa sentitzen.

- Zenbat km. eguneko?

- 100 inguru. Hori bai, kriston zortea izan nuen eguraldiarekin. Egun eguz- kitsuak izan ditut, eta udazken sasoi honetan eguzkia oso ondo hartzen da ez baitu asko berotzen. Bidaia polita izan da.

- Sevilla eta Tarifa ere bi- sitatu zenituen. - Bai, Ta- rifa asko gustatu zitzaidan. Wind-surf-aren hiriburua da eta benetan kurio- soa da han ikusten dena. Sevilla ere ez nuen ezagutzen. Gainera, lau egun nerama- tzan bertan inorekin hitze- gin gabe bikote elgoibartar bat ikusi nuenean. Beraie- kin elkartu eta benetan on- do pasatu genuen.

- Positiboa, beraz. - Duda- rik gabe. Gainera, Toledon lagun bat bisitatzen izan nintzen ospitalean eta gau- za kurioso bat gertatu zen. Ni animoak emateko as- moakin joan eta azkenean beraiek ematen dizkizute zuri. Harrigarria da ikustea nola gizakiak egoera zaile- tan ahalmen ikaragarria dugun aurrera ateratzeko.

- Hurrengo bidia nora, Julen?

- Oraindik ideiarik ere ez daukat. Momentuz beste gauza batzuk ditut buruan lan kontuekin lotuak. Gero, ikusiko dugu.

- Baina bizikletaz.

- Hori, bai.

BESTEAK ESANA

“Julenek nahikoa du liburu eta atlas bat eskuartean izatea herrialde ezberdinetara mentalki bidaiatzeko”.
ANDONI ETXEBERRIA eta ISMENE FULGENCIO





BARREN sariak eta kirolari onena 96

**Abenduak 21,
larunbata**

**Eguerdiko
1,00ean**

Kultur Etxean

Olentzero egunean, BARRENeK 4. urtebetzea egingo du. Ospatzeko, BARREN sarien laugarren edizioa eta 1996ko KIROLARI ONENAREN aukeraketa antolatu dugu. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. BARRENen egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. BARREN SARIKIEK astekarian kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztioi eskerrak eman nahi badizkizuegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura izan nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.

LAGUNTZAILEA



PILOTA Karmel Leon, 16 urte

- Iruneko eta Zaldibiko txapelketetan finalista.
- Intxaurrendoko eta Deba arroko txapelketetan finalerdietara iritsi zen.
- Herrien arteko txapelketan lau partidu irabazi zituen.
- Gipuzkoako txapeliduna eskolarteko txapelketan, kadeteetan.
- Gipuzkoako txapeliduna jubenetan.



ARETO FUTBOLA Manu Rey, 30 urte

- Gipuzkoako 1. mailako jokalaria onena.
- Elgoibarko bi taldeetako jokalaria guztien artean, bigarren golegilerik onena izan da.
- Bere taldea, 1. mailako Gipuzkoako txapelidunordea izan da.



JUDO Esther Idiakez, 13 urte

- Euskadiko eta Gipuzkoako eskolarteko judo txapeliduna.
- Urrezko domina Tarnos-eko (Frantzia) Nazioarteko Txapelketan.
- Brontzeko domina Euskadiko Federatuen Txapelketan.
- Gipuzkoako Selekzioko hautatua, 96-04-27.
- Deba bailarako infantilen txapelketan urrezko domina eta zilarrezkoa Legazpikoan, banaka eta taldeka.



KARATEA Nicolas Jimenez, 16 urte

- Kumite (borroka) Txapelketako Gipuzkoako txapeliduna (96-5-19).
- Kata (teknika) Txapelketako Gipuzkoako txapelidunordea bi aldiz (96-5-19 eta 96-10-11n).
- Kluben arteko txapelketan, Kata txapeliduna. (96-6-29).



MENDIA Josu Merino, 25 urte

- Euskal Federazio eta Goi Mendi Eskolako monitorea.
- Ur-tarrilean Patagoniako Cerro Torre mendeal aurpegitik eskalatzeko asmoa dauka. Lortuz gero, bide horretatik egiten duen lehena izango da Estatu espainiarrean.



EHIZA Patxi Arriola, 32 urte

- Elgoibarko ehiza txikian txapeliduna.
- Euskadiko Ehiza Txapelketan laugarren geratu zen.
- Iazko Espainiako txapeliduna izateagatik Espainiako ehiza txikiko finalerdietarako sailkatu da automatikoki. Bertan, hilaren 21ean, Errioxan izango den finalerako sailkatzea lortu du.

TRIATLOIA Iñaki Konde, 45 urte

- 2.a Euskadiko Triatloi zirkuitoan.
- 2.a Gasteizko Triatloian
- ROTHeKO IRON MANean 342 beteranoren artean 16.a, 11h 47"ko denboraz.
- Euskadiko Triatloi luzeko C kategorian 9h eta 10"ko denbora.
- Postu hauek guztiak A Beteranoetan lortu ditu.



HERRI KIROLAK Angel Ibarluzea, 29 urte

- Gipuzkoako Bolo Txapelketan banaka 7.ena izan zen, binaka hirugarrena eta taldeka txapeliduna San Migeleko taldearekin.
- Euskadiko txapelketan banakako eta binakako kategorian bigarren geratu zen, eta taldeka lehenengoa.
- 1996ko Gipuzkoako bolarik onena izendatu dute.



TXIRRINDULARITZA Arkaitz Martinez, 16 urte

- Urnietako eta Aretxabaletako txirrindulari lasterketetan lehena izan zen, mendiko saria lortu zuelarik.
- Tolosako Gipuzkoako Txapelketan 3. izan zen.
- Beste lasterketa batzuetan lortutako postuak: Arrasaten 5.a, Oñatin 4.a eta Beasainen 6.a.



ATLETISMOA Ana Etxaniz, 11 urte

- Alebinetako lehen urtean, luzera jauzian eta 150 hesietan hirugarrena izan da Gipuzkoako Txapelketan. 60 eta 2.000 metroetan Gipuzkoako Txapelketarako marka egin zuen.
- Hirugarren postua Gipuzkoako Txapelketan taldeka.
- Zarautz eta Iurretako krosetan irabazle eta Hondarribi eta Irunen bigarrena izan da.



FUTBOLA Josu Ibarra, 18 urte

- Real Sociedad Bn hasieran ordezeko eta gero titular izan da. 8 gol egin ditu.
- Espainiako 18 urtez azpiko selekzioarekin jokatu du Gran Canarias-en bai eta Europar txapelketan ere txapelidunorde izan da. Datorren urtean izango den Malasiako munduko txapelketarako sailkatu da selekzioarekin.




ESKUBALOIA Manolo Herrero, 26 urte

- Arrateko Ohorezko B Dibisioan jokatzeko ari da titular.
- Denboraldi honetan partidu bakoitzeko 6 gol sartu ditu bataz/beste.
- 14 urte zituenetik ari da jokatzeko Arrate taldean.



SASKIBALOIA Mikel Artola, 20 urte

- Elgoibarko saskibaloia taldeko saskiratzaile onena aurtengo denboraldian.
- Saskibaloia lehen denboraldia izanik, oraindik ez dute txapelketa inportanterik jokatu.





Arcadia Mendikutek 1944-45. urtean ateratako argaki hau ekarri digu. "San Lorentzo bixamonian, abuztuaren 11n, meza nagusiaren ostian, etxera jun aurretik etara gendun erretratua".

Sallobente auzoan bizi direnek osatzen dute gazte kuadrila hau.

Zeintzuk diren?

Atzean, ezkerretik hasita: Angel Arriola (†), Sebas-

tiana Sodupe, Tomas Zabaleta (atzean), Kontxita Esnaola donostiarra, Arantxa Etxabe, Mari Sol Garmendia donostiarra, Ignacio Etxeberria, Maritxu Arostegi eta Iñaki Arriola (†).

Eserita: Pedro Sodupe, Maritxu Sodupe (†), Arcadia Mendikute, Mertxe Burumendi (atzean), Pili Garmendia (aurrean), Jose Mari Burumendi (†) (atzean), Gloria Arriola (aurrean), Jose Luis Gabilondo (atzean), Maria Elena Arriola (aurrean) eta tente besoa heltzen dagoena, Pedro Mari Gabilondo (†).

ZELETA Barazkiak

*Sagar mota desberdinak, madariak, kiwiak,
babarruna, letxuga, kalabaza,...*



*Ondo pasa
Gabon Jaiak!*



*% 100 bertako produktua!
BETIKO DENDETAN
AURKITUKO DITUZU.*

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 ELGOIBAR



Pedro

Muguruzako
**BATZOKIKO
TABERNA**

ALOKATZEN DA

Interesatuek
deitu 6-8 artean

☎ 74 27 44

ikus Optikarekin Mugerza Krosa ikustera!

OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTA



**KROSERAKO
SARRERA** edo
KATALEJO
HAUEK zureak izan daitezke!!

Erantzun behean datozen galderak eta ekarri **IKUS optikara** (San Bartolome, 10). Ondo erantzuten duzuenon artean **astero** Mugerza Kroserako **bi sarrera** eta parte hartzaile guztien artean **katalejo batzuk** zozketatuko ditugu.

Azpimarratu ondo dagoen erantzuna.

Zein urtetan egin zen lehen aldiz Juan Mugerza Nazioarteko Krosa Mintxetan?

- 1- 1987an
- 2- 1963an
- 3- 1960an

Nor izan da krosa gehienetan irabazi duen korrikalaria?

- 1- Mammo Wolde
- 2- Mariano Haro
- 3- Lackie Stewart

"Anbolo" Ego-Tokiko maskota, el-karteak duen zenbagarren lorittoa da?

- 1- Lehenengoa
- 2- Bigarrena
- 3- Laugarrena

IZEN-ABIZENAK


HELBIDEA

TELEFONOA

Pasa den asteko irabazleak: **Edurne Juaristi Zabala** eta **Manu San Martin Elustondo** izan dira.

Ba al dakizu...

- ✓ Aurtengo edizioan 50 korrikalari baino gehiagok diru kopuru finko bat irabaziko duela krosean parte hartzeagatik soilik?
- ✓ Juan Mugerza krosean 9 txapeldun olinpikok parte hartu dutela?
- ✓ Edizio batean Mammo Wolde korrikalariak Belen Azpeitiaren zapatilekin korrika egin eta irabazi zuela?



Belen Azpeitia, Elgoibarko Krosa aldi gehienetan irabazi duen emakumea.

Urtarrilak 5, igandea
Juan Mugerza Memoriala
**NAZIOARTEKO KROS
TXAPELKETA**



Gabonetako Kuadrilen arteko seigarren edizioa martxan Hilaren 18an amaituko da izena emateko epea


Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen Gabonetako Kuadrila arteko Txapelketaren seigarren txanda da aurten. Azken urteotan izugarri sendo errotu da txapelketa hau gure herriko kuadrilen artean. Urteko urtera parte hartu izan duten kuadrilen kopuruak gorantz egin duela ikusi besterik ez dago: lehen urtean 16 kuadrila; bigarrenean 22, hirugarrenean 26, lau-garrenean 30 eta, iaz, 32.

Patronatuko zuzendariaren esanetan, txapelketan neska kuadrila gehiagok parte hartzea nahiko lukete. "Urtero egon izan da neska talde bat, baina

bakarra beti. Horregatik, aurten, neska talde bat baino gehiago apuntatzea gus-tatuko litzaziguke".

Baldintzak

Izena emateko epea hilaren 18an amaituko da. Udal Kirol Patronatu- an egin behar dira izen-emateak, inskripzio-orriarekin batera, kuadrila bakoitzak 4.000 pta. ordaindu beharko dituz-larik. Elgoibartarra izatea ezinbestekoa da, eta hori horrela dela egiaztatzeko antoaltzaileek NANA eska dezakete. Txapelketan parte hartzeko beste baldintza bat zera da: talde bakoitzak bost frogetan derrigorrez parte hartu behara. Sariei dagokienez, irabazten duen kuadrilak garaikurra eta 25.000 pta. ja-soko ditu.



FROGEN EGUTEGIA

EGUNA	KIROLA	TOKIA
Abenduak 23	Saskibaloia Pala	Kiroldegia Ikastola
Abenduak 24	Areto Futbola	Kiroldegia
Abenduak 26	Saskibaloia Krosa (19,00)	Kiroldegia Plaza Handia
Abenduak 27	Areto futbola Txirrindularitza (20,00)	Kiroldegia Estazio kalea
Abenduak 30	Saskibaloia Areto futbola	Kiroldegia Kiroldegia
Abenduak 31	Saskibaloia (finala) Areto futbola (finala)	Kiroldegia Kiroldegia

ESKOLARTEKO JOKOAK

AGENDA (Azaroak 30, 6. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

Benjamin mutilak (IMHn)

9,30 Mendaro A1 - Ikas Zirt
10,00 Mendaro A2 - Ikas Ki-
rol
10,30 Ikas Mazarro - Ikas
Txuri
11,00 Pilar Flash - Pilar Laka-
sitós

Benjamin neskak (IMHn)

Ikas Zart (atsedena)
11,30 Mendaro B - Urasandi
12,00 Ikas Izurde - Pilar Uso-
ak
12,30 Ikas Izar - Pilar Kas

SASKIBALOIA

Alebin mutilak (Urasandin)

9,00 Ikas Eguzki - Pilar All
Star
9,45 Ikas Axelkoak - Pilar S. Ger-
main
10,30 Ikas Otsokoak - Pilar
Ajax
11,15 Ikas Ilargi - Herri Boome-
rang
12,00 Herri Manchester - Menda-
ro D

Alebin neskak (Ikastolan)

Ikas Eder (Atsedena)
9,45 Ikas Txingor - Ikas Sei
10,30 Ikas Trumoi - Pilar Mix
11,15 Ikas Laino - Pilar Star Girls
12,00 Mendaro C - Herri Wo-
men s

ESKUBALOIA

Infantil mutilak (kiroldegian)

9,45 Ikas Urgin - Ipurterreak
10,30 Ikas Txuri - Ikas Pirri
11,15 Ikas Amantis - Pilar In-
ter
12,00 Herri Milan - Pilar Boys

Infantil neskak (Ikastolan)

Ikas Beltz (atsedena)
10,30 Peña Insti - Pilar Girls
11,15 Gremlins - Pilar Man-
chester
12,00 Ikas Gorri - Ikas Axel-
koak

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Santurtzi 3
Mondragon 2 - Elgoibar 2 (1. erreg.)
La Salle 1 - Elgoibar 1 (Oho.
jubenilak)
Elgoibar 6 - Aretxabaleta 1 (2.
jubenilak)
Eibar 0 - Elgoibar 0 (Kadeteak)
Elgoibar 6 - Zarautz 2 (Infantilak)
Elgoibar 6 - Urretxu Zum. 4 (Neskak)
Pedrusko 1 - Mutriku 2 (2. erreg.)

Eskubaloia

Hyundai Elg. 24 - Jauja 17
(Seniorrak)
Hyundai Elg. 21 - Ormaiztegi 19
(Seniorrak)

Futbitoia

Maser 8 - Menisco 2
Sanroketarrak 4 - PSK 3
S. Braga 5 - Ikus Optika 6
Bokordo 1 - Kunta 7
Udaberri 2 - Berrogei Duro 3
S. Pitxote 2 - Orbela 5
Aurten Bai 2 - Karkis 6

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 14
13,30 Urki A - Antzuola (Jubenilak)
15,30 C.D. Elgoibar - S.D. Eibar (1.
erreg.)
17,15 C.D. Elgoibar - Amaro (Oho.
jub.)
Igandea, 15
10,00 Eibartarrak - Sondika
(Neskak)
12,00 S.D. Eibar - Real Sociedad (Oho.
jub.)
13,45 Urki B - Bergara (Jubenilak)
16,00 C.D. Elgoibar - Beti Ona
(Kadeteak)
17,45 Beti Sutan - Gazteak (1.
erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 14
16,00 Pneumax Elg. - Arrasate (Kad.
mut.)
17,30 Pagoaga Elg. - Pulpo (Jub.
neskak)
19,00 Unceta Elg. - Urnieta (Kad.
neskak)

Futbitoia, Kiroldegian

Igandea, 15 (Arbitraia: Maser)
9,00 Zazpi - Aurten Bai
10,00 Uda Berri - Borkodo&Bofino
11,00 Karkis - Berrogei Duro
12,00 Kunta Kinta - Orbela

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 13
22,10 Elgoibar F. S. - Hogar Extremeño (1.
mala)
23,10 Elgoibar F. S. - Hosfrinor
(Autonomikoa)

Atletismoa, Mintxetan

Eskolarteko jokoak
10,30 Altura, pisua, luzera eta
errelebuak

Kutxa bat lurperatuko da Udaletxeko



Datorren ostiralean, hilak 20, Elgoibarko Hiri Gutunaren Aldarrikapenaren 650. urteurrena beteko da. Idazki horren arabera 1346ko abenduaren 20an sortu zen Elgoibarko Hiria. Udalak, Kultur Sailaren bitartez hainbat ekitaldi antolatu ditu urtean zehar. Gehienak azken bi aste hauetan burutu dira. Hala ere, ekitaldi zentralak datorren ostegunean eta ostiralean izango dira.



Kutxa sartzeko zuloa Udaletxeko arkupeetan egin dute.

Ostegunean, hilak 19, Koldo Lizarraldekin "Festa herrikoiak Elgoibarren" liburua aurkeztuko du Kultur Etxean iluntzeko 19,30etatik aurrera. Lehenago, buruhandi eta erraldoien konpartsak herriko kaleak zeharkatuko ditu Txistulari eta Dutzaineroek alaituta. Koldo Lizarralde etnografoak adierazi bezala, "Elgoibarren ospatu izan diren jaiak eta oraindik ospatzen direnak bildu ditut. Batzuek gaur egun arte iraun dute eta beste batzuek desa-

gertu egin dira. Zergatik desagertu diren ere jasotzen dut". Era berean, Elgoibarren egiten ziren zeenketei atal berezia eskaini die Lizarraldekin. Musikariek ere paper berezia dute liburuan "jaietako protagonista nagusiak baitira". Udalak argitaratu du liburua eta euskaraz eta gaztelaniaz kale-ratu da.

Kutxaren lurperaketa, ekitaldi sinbolikoa

Abenduaren 20an betetzen da 650. urteurrena. Ana Santolaia kultur zinegotziak azaldu digunez,

"goizian hiru tokitan batera, Plazan, Maalan eta Kultur Etxian txalapartia joko dabe. Arratsaldeko 7etan, Eibarko Udalak okasiorako laga diguzen kainoiek Kultur Etxetik tiro eingo dabe ekitaldien hasiera anuntziatuz". Segidan Pello Arrietak egindako Elgoibarko ondare historiko-artistikoari buruzko diaporama eskainiko da Kultur Etxean. Bukatu bezain pronto ekitaldi protokolariora deitu dutena hasiko da. Udalbatza osoa Haritz eta txistulariekin Plazara abiatuko dira. Bertan alkate izandakoei elkartuko dira. Alkatei oroigarri bat eta Hiri Gutunaren erreproduzio bana emango zaie. Protokoloa bete ondoren, Udaletxearen sarrera nagusian aurrean kutxa bat lurperatuko da egunen batean norbaitek han topa dezan. Eskuz taldekoek egindako kutxa egurrezkoa izan arren errefortzatu egin da sendoagoa izan dadin. Kutxan honako gauza hauek sartuko dira: egun horretako egunkariak eta BARRENa, Ardanza lehendakariak, Koruko Aizarnak eta Gillermo Garate alkateak sinatutako pergaminoa eta Elgoibarko auzo bakoitzeko lur pusketa bat.

650. urteurrenako ospakizunak

19, OSTEGUNA

18,30 Buruhandi eta erraldoiak
Udal Txistulari eta Herriko Dutzaineroekin
19,30 "Festa herrikoiak Elgoibarren" liburua aurkeztuko da
Egilea: Koldo Lizarralde
Aurkeztuko da: Juan Antonio Urbeltz, Ikerfolk-eko kidea
Kultur Etxean

20, OSTIRALA

650. urteurrenaren eguna

09,00 Txalaparta Plazan, Kultur Etxean eta Madalan
19,00 Kainoikadak Kultur Etxetik
Ondoren, Elgoibarri buruzko diaporamaren emanaldia
Gaia: Ondare artistiko-historikoa
Egilea: Pello Arrieta
Jarraian, udalbatza, Haritz Dantzari Taldea, Txistulariak eta mazukariak Kultur Etxetik Udaletxera abiatuko dira
Txistulariek lagunduta.
Segidan, agintariei harrera Amaieran, kutxaren lurperaketa arkupeetan



*Abenduaren 6an, 75 urte zituela hil zen
JUAN BALZOLA ARRIOLAren sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

Patronatuko 4 zerbitzuren subkontrataziorako deialdia

Masaia

ESKAINTZEN DA:
Diru-sarreraren %75 gehienez

Aerobic-a

ESKAINTZEN DA:
2.300 pta. orduko (BEZa barme) gehienez

Igeriketa-Soroslea, kirol anitza, eskalada, tenisa

ESKAINTZEN DA:
- 3.500.000pta. (BEZa barme) gehienez
igeri-soroslearentzat
- Gainontzeko zerbitzuak:
diru-sarreraren %75a gehienez

Instalazioen garbiketa

Kiroldegia - Mintxeta (maiatzetik aurrera)
- Udal Tennis Pista

ESKAINTZEN DA:
4.500.000 pta. urteko (BEZa barme)
gehienez

OINARRIAK Udal Patronatuan jaso daitezke (Olaizaga Kiroldegian).
ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: abenduaren 24a, eguerdiko 12ak arte.

Anboto



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 - Tel. (943) 79 20 48 - ARRASATE -
MONDRAGON

Etxebizitzak Mendaron!

 **KILIMON KOOPERATIBA:** Laster
eraikitzeko!!


12 etxebizitza, garajeak eta lokal komertzialak
(DENA KANPO ALDERA)

 **HORMAETXE KOOPERATIBA:** osoa
eta entregatua

 **TXIRRISTAKA KOOPERATIBA:** osoa
eta eraikitzen

18 etxebizitza, garajeak eta lokal

Gutxi gora-beherako prezioa:





PREMIAZ-

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning-a 742950
Alkoholiko Anonimoak 740385
D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
Gurutze Gorria . . . 743864
Mendaroko Ospitalea. 756264
Odol Emaileak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
PESA (Eibar). 102131
Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Udal Kirol Patronatua
744415
Kultura Zerbitzua . 742158
Mendaroko Udala. 756100
Ongizate zerbitzua 741008
Udaletxea. 741050
Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740142
Elgoibarko Izarra . 741626
Kiroldegia 74 4415
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola . . . 742145
Mintxeta 744315
Parrokia 740842
Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
Herri Eskola 74 08 79
I.M.H. 74 41 32
Instituta 74 02 67
Ikastola 74 44 41
L.H.I. 74 44 80
Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco . 74 40 73
El Correo Español 74 10 82
Egin 10 84 21

13 ostirala

22,15 ZINEA
"Intimo y personal"

14 larunbata

11,30 ZAZPIKI
IRRATIAREN BILERA
Ganbaran

10,00-14,30 USAKUME
TIRAKETA
Albitxurin
Antolatzailea: La Unión

14,30 OKUPAZIOAREN
ALDEKO MANIFARAKO
AUTOBUSA
Irteera Madalatik
Antolatzailea: Gazte
Asanblada

16,15 EKBren
MANIFESTAZIOARAKO
AUTOBUSA
Irteera Txankakua zubitik

20,00 KONTZERTUA
Añorgako Ertizka Zortzi-
kotea
San Bartolome Parrokian
Antolatzailea: Musika eta
Dantza Fundazioa

22,30 ANTZERKIA
Gaia: Umekeriak
Antzeztaldea: Tanntaka
Herriko Antzokian

15 igandea

10,00 MORKAIKORA
JAIOTZA IPINTZERA
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko
M.E.

16,30 ZINEA
"Hackers, piratas
informáticos"

19,30-22,15 ZINEA
"Intimo y personal"

16 astelehena

22,15 ZINEA
"Intimo y personal"

17 asteartea

17,00 DIAPOSITIBAK
Gaia: "Neguko solstizioa
Euskal Herrian"
Antolatzailea: Udal
Euskaltegia
Kultur Etxean

19 osteguna

18,30 BURUHANDI
ETA ERRALDOIAK
Udal Txistulari eta
Herriko Dultzaineroekin

19,30 LIBURU
AURKEZPENA
"Festa herrikoiak
Elgoibarren"
Egilea: Koldo Lizarralde
Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA
"Dead man"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

20 ostirala

650. urteurrenaren
eguna

09,00 TXALAPARTA
Plazan, Kultur Etxean eta
Madalan.r

19,00 DIAPORAMA
Gaia: Elgoibarko Ondare
artistiko-historikoa
Egilea: Pello Arrieta
Jarraian, agintariei harrera
eta protokolo saioa
Udal Areto Plenoan

22,15 ZINE KLUBA
"Dead man"
Antolatzailea: Ongarri

ZIN



Zuzendaria: Jon Avnet
Antzezleak: Robert Redford, Mi-
chelle Pfeiffer, Stockard Channing.

Intimo y personal

Amerikako telebistako informatiboetan giroturik, bi pertsonen arteko maitasun istorioa kontatzen du. M. Pfeiffer Nevadako neska bat da, ospearen bila dabilena. Robert Redford, berriz, ez da atzo hasitakoa lanbide horretan. Hasi berriaren gorakada eta beteranoren gainbehera aldi berean gertatuko dira, tartean maitasun istorioa nahastuko delarik.

● Salsa eta merenge ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak salsa eta merenge ikastaroa antolatu du urtarrilaren 8tik aurrera. Bi hilabeteko iraupena izango du ikastaroak; astelehen eta asteazkenetan, iluntzeko 8etaetik 9,15ak bitartean izango dira klaseak. Abonatuentzat 3.000 pta.ko prezioa jarri dute eta 4.000koa gainontzekoentzat. Izena emateko 74 44 15ra deitu.

● Neguko solstizioa

Udal Euskaltegiak ikasleei zuzenduriko diapositiba saioa antolatu du datorren astearterako, hilak 17. Kutxa Fundazioaren bidez, Euskal Herrian neguko solstizioa nola ospatzen den erakusten duen diapositiba emanaldia emango da. Egi-leak Patxi Sanz eta Aitor Atxega dira. Kultur Etxean arratsaldeko 5etan hasiko den emanaldia ikasleak ezezik, interesa duen herri-tar oro ere joan daiteke.

● EKBren manifestazioa

EKBk antolatutako "Eman Euskarari Berea" kanpainari bukaera emateko manifestazioa izango da bihar, hilak 14, Bilbon. Bertara joateko autobusa antolatu da. Arratsaldeko 16,15etan Txankakua zubi-teik aterako da.

● Zazpikiren bilera

Bihar, hilak 14, etapa berriari dagokion programazioari buruzko bilera egingo du Zazpiki Irratiak. Ohi denez, Zazpiki Irratiaren ganbaren izango da goizeko 11,30etan.

● Elgoibar Herri Irratian

Larunbat goizean, hilak 14, Loiola Irratiaren "Herri-zazpiki" irratsaioa Udal pleno aretotik emango da zuzenean. Elgoibarri buruzko programa izango da oso-osorik, goizeko 11etan hasi eta eguerdiko 1ak arte. 650. urteurrena dela-eta, Pello Arrieta eta Koldo Lizarralderekin solasaldia, alkateari elkarrizketa, eztabaida tartea, leihaketa etab. ere izango dira.

● Añorgako Ertizka Otxotea

Udal Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta, Añorgako Ertizka Otxotearen kontzertua izango da bihar, hilak 14, iluntzeko 8etatik aurrera S. Bartolome parrokan. Pello Mendizabalek zuzendaritza lanak egiteaz gain, lehen zatian organua joko du. Hainbat sari irabazi dituzte Euskal Herriko Txapelketetan bai eta kanpokoetan ere. Azkenen ETBk antolatutako Otxoteen I. Txapelketako lehen saria izan da.

● Jaiotza

● Antzerkia

Bihar, hilak 14, gaueko 10,30etan Jose Ramón Sorozik aktore ezagunak bakarka antzezten duen Umekeriak lana ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Umoreak gainezka egiten duen narrazioan, "haur" batek bere nekazal eremuko hainbat bizipen gogoratzen ditu.



● Morkaikon

Morkaiko M.E.ak Morkaiko mendira irteera antolatu du domekarako, hilak 15, urteroko ohitura den bezala, jaiotza ipintzeko. Goizeko 10etan Plaza Handian elkartuko dira. Bestetik, Argazki Lehietan parte hartu nahi duten guztiei gogorarazi, epea abenduaren 21ean amaituko dela.

● Manifestazioa okupazioaren alde

Larunbatean, hilak 14, okupazioaren alde eta kode penal berriaren aurkako manifestazioa izango da Iruñean. Gazte Asanbladak bertara joateko autobusa antolatu du. Arratsaldeko 2,30etan Madalako parketik aterako da. Prezioa: 800 pta.

● Usakume tiraketa

Bihar, hilak 14, La Unión-ek antolatutako usakume tiraketa izango da Albitxurin. Bi txanda egongo dira: goizeko 10etatik ordu batak arte eta arratsaldeko 2,30etatik 17,30ak arte. Lehen bederatzai sailkatuetzako sariak egongo dira. Bestetik, gogoratu gaur, hilak 13 eta hilaren 21ean, 6 postu aterako direla erre-trankan bazkideentzat.

● Olentzero

Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatzen duen abenduaren 24ko Nagusien Olentzeroren entsaiuak datorren astearte eta ostegunean, hilak 17 eta 19, arratsaldeko 7,30etan izango dira Kimitzen.

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: J. Jarmursch.
Antzezleak: J. Deep, G. Farmer, R. Mitchum.

Dead man

W. Blake Cleveland-eko kontable bat da. XIX. mendearen bigarren erdialdean Amerikako mendebaldeko mugantz abiatzen da. Bidaian zauritu egingo dute. Egoera honetan eta erabat desorientaturik, ihesi dabilen indio batekin egiten du topo. Honek Blake poeta ingelesa dela uste du. Bidaian zehar legez kanpoko iheslari eta asesinatzaile bihurtuko da.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
13	Yudego Zabaleta	
14	Yudego Zabaleta	
15	Yudego Zabaleta	
16	EtxeberrriaAnduaga	
17	EtxeberrriaAnduaga	
18	EtxeberrriaAnduaga	
19	EtxeberrriaAnduaga	
20	Bidasolo Anduaga	

OKINDEGIA
15 igandea Eizagirre

Salerosketak

- ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. ☎ 74 15 45 (eguerdian eta gauean)
- ◆ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. ☎ 74 10 42
- ◆ Kitarra elektrikoa eta anplia erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Eguerdian eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ 74 36 98
- ◆ 5 hilabeteko SETER INGELES arrazako txakurkume eme bat saltzen dut. ☎ 75 61 47
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ 75 51 90
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordjica) 42-43. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (Gauetz)
- ◆ Ford Fiesta batentzako EKIPAIARAKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. ☎ 74 27 93
- ◆ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ 74 10 09
- ◆ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ 74 17 87
- ◆ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ 74 23 13
- ◆ Errepiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ 74 11 29

Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Matematika finantzieroko ematen dituen norbait behar dugu. ☎ 74 13 18
- ◆ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ 74 28 02

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ 74 11 40 (Iruñe)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ 74 39 39 (Puri)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. ☎ 74 40 57 (Celsa)
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependientia bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 23 90
- ◆ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 74 15 09 / 74 30 30
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informaeak daukat. ☎ 74 23 30 (Eva)
- ◆ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako eginez. ☎ 74 30 90
- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ 74 43 16 Marimar
- ◆ Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 74 43 16 Arantxa
- ◆ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 30 30

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Sukaldari bat behar dut Soraluzeko jatetxe baterako. ☎ 75 10 01 (Javi)
- ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ 70 12 33

Etxebizitzak

- ◆ Etxe bat saltzen da Soraluzen. ☎ 75 11 44 (Justo)
- ◆ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva ☎ 74 16 30 (lanorduetan)
- ◆ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ 74 37 41
- ◆ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe, 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea. ☎ 75 51 77 Tere
- ◆ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. ☎ 74 44 66 Arantxa

Bestelakoak

- ◆ Ohe bat behar du CARITASek. ☎ 74 15 09 / 74 12 57

Garajeak


- ◆ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. ☎ 74 12 53
- ◆ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ 74 27 73
- ◆ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ 74 01 13
- ◆ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. ☎ 74 12 53 (Pilar)

Agurrak

- ◆ Zorionak **Idoia Esnaolari** bere Elgoibarko lehenagusi Nerea eta Olatzen partez.
- ◆ Mila kilo zorion **aitxitxa Jose Luisi** hilaren 16an bere urtebetetzea delako. Musu handi bat eta ondo pasa bere hiloba Nerea eta Olatzen partez.

Agurrak

- ◆ Zorionak **Kontxi Pradori** abenduaren 8an urteak bete zituelako eta oso andereño ona delako. Ikas-tolako 5B gelakoan partez.
- ◆ Zorionak **Koldo Aldaluri**, bihar, hilak 14, 7 urte beteko dituelako. Musu handi bat bere arre-baren eta familiaren partez.
- ◆ Zorionak **Jesus Ibareri** hilaren 12an urteak bete zituelako. Zure seme-alaben partez.
- ◆ Zorionak **Borja Uriarteri** eta Paul Esnaolari hilaren 16an eta 18an 26 urte beteko dituztelako. Kuadrilakoak.
- ◆ Zorionak **Asier Erías-i** hilaren 12an 8 urte bete zituelako. Bere lagun Endikak.
- ◆ Zorionak **Iskanderri** hilaren 16an urteko bat beteko duelako. Janire eta Larraitzen partez.



- ◆ **Nadiari** zorionak hilaren 10ean 8 urte bete zituelako. Bere ahizpa Nora eta gurasoen partez. Zorionak osaba Xabier, izeko Ana eta aita eta amamaren partez. Baita ere zorionak zure lagun Ane, Irati eta Nerearen partez.



- ◆ Abenduaren 17an 11 urte beteko dituen **Urko Sanchez-i** zorionak familiaren partez.



- ◆ Zorionak **Mi-ren Belza-ri** atzo, hilak 12, 10 urte bete zituelako. Familiaren eta bere ahizpa Ana eta Amaia-ren partez musu handi bat.





goki eReformak, s.L.

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

ARMUE-

Baserriko haragietan berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

ireki berria

UGARI

FERRETERIA

BAINURAKO ALTZARIAK

Errosario kalea, 27 - Tel. 74 22 02 - 20870



ABARKA

Errosario, 31 - 20870 ELGOIBAR



Denetik daukagu
oinetakoetan,
zatoz!!



GREMIOEN GIDA

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

Gremioen gida honetan
azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

ITYRGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

ARGI PINTURAK

Erretxindi, 1
☎ 74 41 47
☎ 909 20 72 05

ISOLAMENDYAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

IGELTSERITZA

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76